

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

**Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 2219/2019 FORU AGINDUA, uztailaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko maiatzaren 21eko 57/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako diru-laguntzetarako eskabideak ebazten dituena; foru-dekretu horren bidez, 2019. urtean Bizkaiko Lurralde Historikoko udal erakusketa-aretoek garrantzi bereziko praktika artistiko garaikideak zabaltzeko programatzen dituzten erakusketa koordinatuak sustatzeko Aldundiak emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.**

2019ko maiatzaren 28an argitaratu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko maiatzaren 21eko 57/2019 Foru Dekretua; haren bidez, 2019. urtean Bizkaiko Lurralde Historikoko udal erakusketa-aretoek garrantzi bereziko praktika artistiko garaikideak zabaltzeko programatzen dituzten erakusketa koordinatuak sustatzeko Aldundiak emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren.

Deialdia arautzen duen foru-dekretu horren 11. oinarriko 3. zenbakian xedatutakoarekin bat, Saileko titularrak emango du ebazpena, Kultur Ekintzako Zerbitzuak aurretik txostena eginda.

2019. urtean deialdi honetako diru-laguntzak emateko ezarritako aurrekontu-muga hogeita hamar mila (30.000,00) euro da, eta 2019. urteko aurrekontuaren 0405, G/334104/43299 partidako 2007/0209 proiektuaren kargura ordainduko da. Izan ere, hala behar duela jasotzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko maiatzaren 21eko 57/2019 Foru Dekretuak 18. oinarriko (Aurrekontuko partida) 1. zenbakian.

Horrenbestez, Kultur Ekintza Zerbitzuaren 2019ko uztailaren 17ko txostena aintzat harturik, beharaxeago azaltzen dena xedatuko dut. Horretarako, kontuan hartzen dut zer eskumen ematen dioten honako arau hauek Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren titularrari: Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak (39.i eta 67.1. artikulua), Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoaren Araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, eta arau horiekin bat datozen gainerako xedapenek. Hala, bada, honako hau

**XEDATZEN DUT:**

*Lehenengoa:* Foru agindu honen I. eranskinetako eskabideak onartzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko maiatzaren 21eko 57/2019 Foru Dekretuaren babesean.

*Bigarrena:* Foru agindu honen II. eranskinetako eskabideak ezestea, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko maiatzaren 21eko 57/2019 Foru Dekretuaren babesean.

*Hirugarrena:* Deialdi honetako ebazpena interesdunei behar bezala jakinaraz diezaiela agintzea Kultur Ekintzako Zerbitzuari, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko maiatzaren 21eko 57/2019 Foru Dekretuaren 11. oinarriko 4. zenbakian ezarritakoa bete dadin.

*Laugarrena:* Foru-agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta administrazio publiko interesdunak haren aurkako errekurtsoa jar dezake administrazioarekiko auzibidean, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita. Aurrez errekerimendua egin bada —Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehatzen denaren arabera—, orduan, errekurtsoa aurkezteko epea beren-beregiko erabakiaren jakinarazpena



jasotzen den egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen edo, bestela, ustez ezetsitatzat jotzen den egunaren biharamunean.

*Bosgarrena:* Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Bilbon, 2019ko uztailaren 17an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA

**I. ERANSKINA / ANEXO I**

| IFZ/NIF   | Eskatzailea<br>Solicitante                           | Proiektua<br>Proyecto                           | Aurrekontu<br>araztua<br>Presupuesto<br>depurado (€) | Puntuak<br>Puntos | Emandako<br>zenbatekoa<br>Importe<br>concedido (€) |
|-----------|--|---|--|-------------------|--|
| P4801400E | AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA                         | Exposición BOSTEKO 2019                         | 4.325,01   | 75                | 2.270,63   |
| P4806400J | AYUNTAMIENTO DE LEIOA                                | Exposición BOSTEKO 2019                         | 7.456,10   | 75                | 3.914,45   |
| G48117378 | CASA MUNICIPAL DE LA CULTURA                         | Exposición BOSTEKO 2019                         | 3.325,01   | 75                | 1.745,63   |
| Q4800695A | ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL<br>AULA DE CULTURA DE GETXO | Exposición BOSTEKO 2019                         | 6.034,70   | 75                | 3.168,22   |
| Q4800687H | AMETX ERAKUNDE AUTONOMOA                             | Exposición BOSTEKO 2019                         | 3.440,00   | 75                | 1.806,00   |
| P4801700H | AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO                            | Open Itinera                                    | 3.085,00   | 45                | 971,78   |
| P4801700H | AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO                            | Iñaki Bilbao                                    | 1.701,44   | 50                | 408,35   |
| P4801700H | AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO                            | Javier Santurtún                                | 2.501,00   | 40                | 470,19   |
| P4805400A | AYUNTAMIENTO DE GÜEÑES                               | Open Itinera                                    | 4.404,40   | 45                | 1.387,39   |
| P4809600B | AYUNTAMIENTO DE ORTUUELLA                            | Denboraren hariak/Hilos del tiempo              | 1.000,00   | 45                | 315,00   |
| P4809700J | AYUNTAMIENTO DE SESTAO                               | Denboraren hariak/Hilos del tiempo              | 1.400,00   | 45                | 441,00   |
| G48117378 | CASA MUNICIPAL DE LA CULTURA<br>DE BASAURI           | Programa anual de artis-<br>tas emergentes 2019 | 10.000,00  | 70                | 2.500,00   |
| TOTAL     |  |   |  |                   | 19.398,64  |

**II. ERANSKINA / ANEXO II**

| IFZ/NIF   | Eskatzailea<br>Solicitante | Proiektua<br>Proyecto                    | Aurrekontu<br>araztua<br>Presupuesto<br>depurado (€) | Lortutako<br>puntuak<br>Puntos<br>obtenidos | Ezezteko arrazoia<br>Motivo de la desestimación   |
|-----------|----------------------------|--|--|---|---|
| P4809700J | AYUNTAMIENTO<br>DE SESTAO  | Burdina eta ahotsa<br>El hierro y la voz | 1.476,20   | 30  | Ez du lortu 21eko maiatzaren Bizkaiko Foru Aldundiaren 57/2019 Foru Dekretuaren 9.3. oinarrian eskatzen den gutxieneko puntuazioa: 40 puntu.<br>No haber alcanzado la puntuación mínima necesaria de 40 puntos tal y como figura en la Base 9.3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 57/2019, de 21 de mayo. |